



Gipuzkoako Ur Kantsortzioa
Gipuzkoako Urak

OBRA

**“HORNIDURA SAREAREN
SEKTORIZAZIOA”**



EIBAR

Marzo - 2020 - Martxo



AURKIBIDEA

Oria

1. MEMORIA	3
1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA.....	4
1.2 OBREN DESKRIBAPENA	5
1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA	6
1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA	6
1.5 LANEN PLANGINTZA.....	6
1.6 AURREKONTUA.....	7
1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA	7
1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA.....	7
1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK.....	8



1. MEMORIA



1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

Eibarko ur hornidura sareen kontserbazio eta mantentze lanen barnean, garrantzitsutzat hartzen da zaharkiturik edota hondaturik aurkitu daitezkeen sareen berritzea eta elementu osagarrien hobekuntza jarraitua.

Zehazki, gaur egungo sektoreak tamaina txikiagoko sektore berritan zatitzeko udalerriko puntu ezberdinetan egin beharreko eginkizunak barneratzen ditu egitasmo honek, sarearen kontrolari hobekuntza bat eta sareari berari maneia garrantzitasun handiagoa emanez.

Sektorizazio berria bi fasetan burutuko da, udalerriko 27 sektoretatik 8 eradaltuko direlarik, tamaina txikiagoko 16 sektore sortuz. Lehen fase honetan, aurrez aipaturiko 8 sektoretatik 5etan jardungo da, 9 sektore txikiagotan zatituz.

Proiektaturiko hobekuntzek 5 emari-neurgailu berriren instalakuntza jasotzen du.

SEKTORE ZAHARRA	SEKTORE BERRIA
TUTULU	TUTULU
	ALDATZE (FASE 2)
	MEKOLA (FASE 2)
INSERCION AMAÑA	INSERCION AMAÑA
	AMAÑA
IRAGORRI	IRAGORRI
	SAUTXI
	MUZATEGI
	JARDIÑETA (FASE 2)
IPURUA	IPURUA
	MOGEL
INDALECIO	INDALECIO
	GISASOLA
KARMEN	KARMEN
	ERREBAL (FASE 2)
UNZAGA	UNZAGA



1.2 **OBREN DESKRIBAPENA**

Obra izaera puntuala du eta emari-neurgailu sektorialen eta muga balbulen instalakuntza jasotzen du. Kasu batzuetan posible izango da gaur egun sareko puntu ezberdinetan kokaturiko hainbat balbula baliatzea.

Emari-neurgailuak uraren fluxuaren lehen distortsiora arteko marjina jakin batzuekin instalatuko dira, funtzionamendu egoki bat emateko, ondorengo distantziak erreferentziazat hartuz:

- Emari-neurgailu aurretik: 5 bider hodiaren diametroa
- Emari-neurgailu ondoren: 3 bider hodiaren diametroa

Aurretiaz, balizko eragindako zerbitzu kritikoen kokapenerako hobiak egingo dira.

Puntu ezberdinetako lanak amaitu ahala, birjartzeari, kasuan kasu behin-behinekoa edo behin-betikoa, eta eragindako ingurune guztien garbiketari ekingo zaio

Behin tarte ezberdinak osatuta eta zerbitzuan jarri aurretik, tarte horien presio-probak egingo dira, bai eta berauen desinfekzioa ere.

Lanak nagusiki ondorengoan datzate:

- Eraisketak.
- Zangak hondeatzea eta betetzea.
- Sektorial multzoen instalakuntza (emari-neurgailuak eta balbulak)
- Fabrika-obren egikaritzea edota berritzea.
- Zoladuren birjartzea.

Afekzioak

Obra honetan ondorengo afekzioak aurreikusten dira:

- Ibilgailuen trafikoarekiko afektzioak: Ibilgailuen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiari, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Oinezko trafikoarekiko afektzioak: Oinezkoen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Beste zerbitzu batzuekiko afektzioak: Beste zerbitzu batzuen gaineko afekzioei dagokionerako, Memoria honen 2. Eranskina dago.



Lan bereziak

Obra honetan ez da lan berezirik edo gauzatzeko sistema ezohikorik aurreikusten.

1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA

Sare berriak diseinatzean, irizpide orokor gisa planteatu ohi da, kanalizazio berriak sareko maniobrak erraztu eta, ahal den neurrian, jabe pribatuei kalteak eragitea sahiesten dute lur publikoen, udal-bideen eta sarbide libreko eremuen azpian kokatzea.

Bigarren irizpide bat, sare berriak ordeztu diren eta zortasuna duten sareen ondoan kokatzea da.

Kasu honetan, proiekturiko eroanbideek irizpide orokor horiek betetzen dituzte, beraz ez da aurreikusten baimenen kudeaketa beharrik.

1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA

Ureztatze-ahoak

Hornidura sarea berritzeko proiektu honetan ez da aurreikusten ureztatze-ahorik jartzea. Udalak unitateren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik.

Sute-ahoak

Hornidura sarea berritzeko proiektu honetan ez da aurreikusten sute-ahorik jartzea. Hala ere, udalak unitateren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik, kokapena eta modeloa (zutabekoa edo espaloikoa) adieraziz.

1.5 LANEN PLANGINTZA

Obra honen exekuziorako 16 asteko epea aurreikusten da.

	ASTEA															
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
ZUINKETAK																
HOBIEI IREKITZE ETA HANDITZE																
EMARI-NEURGAILU MULTZOEN KOKATZE																
IRISPENAK ETA HODIEN BANAKETA																
UR HORNIDURA HODITERIA																
BIRGAITZEAK																
ERREMATEAK																



1.6 AURREKONTUA

Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren zenbatekoa BERROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOKOA (55.854,37 €) da.

Kontrata bidezko Gauzatze Aurrekontuaren zenbatekoa HIRUROGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOKOA (67.583,79 €) da, B.E.Z.a barne.

1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

“Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana” Memoria honetako 1. Eranskinean dago.

Oinarrizko azterlana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatuz idatzi da.

1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA

“Hondakinen Kudeaketa Azterlana” Memoria honetako 3. Eranskinean dago.

Hondakinen Kudeaketa Azterlana Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz idatzi da.



1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Proiektua ondorengo dokumentuez osatua dago:

- | | |
|--------------|---|
| 1 Dokumentua | MEMORIA |
| | Memoria |
| | 1. Eranskina - Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana |
| | 2. Eranskina - Eragindako Zerbitzuak |
| | 3. Eranskina – Hondakinen Kudeaketa Azterlana. |
| 2 Dokumentua | PLANOAK |
| | 1. Kokapen planoak |
| | 2. Gida planoak |
| | 3. 1 jarduketa – Mogel sektorea |
| | 4. 2 jarduketa – Gisasola sektorea |
| | 5. 3 jarduketa – Sautxi sektorea |
| | 6. 4 jarduketa – Amaña sektorea |
| | 7. 5 jarduketa – Muzategi sektorea |
| | 8. 6 jarduketa – Insercion Amaña sektorea |
| | 9. Zanga ereduak |
| | 10. Hornidura xehetasunak |
| 3 Dokumentua | BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA |
| 4 Dokumentua | AURREKONTUA |

Donostia, 2020ko martxoa

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Gipuzkoako Urak, S.A.